



MUTURREKO FENOMENO METEOROLOGIKOEI BURUZKO ABISUA 5897/2023 Zkia

Sortutako data eta ordu lokala: 2023/11/02, 10:30.

Informazioaren eguneratze data eta ordu lokala: 2023/11/02, 19:30
(baldin eta lehenago egitea premiazkoa ez bada).

◆ Zergatia:

Itsasaldeko Arriskua: Nabigazioa lehenengo bi milietan
Itsasaldeko Arriskua: Zipriztinak
Haizea: haizeguneetan
Haizea haizeguneak ez diren tokietan

◆ Muturreko Fenomenoen Iragarpena:

Osteguna, hilak 2:

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 10etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izango da. Gauean txikitu eta 4-5 m ingurukoa izan daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 14-16 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 5-6ko indarrarekin eta 7ko tarteekin. Azken orduetan hego-mendebaldeko haizea nagusituko da. Itsaski handia edo itsaso zakarra eragingo du, itsaso oso zakarreko guneeekin.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 10etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoraren inguruan noiz olatuek itsasertza gaindi dezaketen tarte laburretan. Olatuen altuera adierazgarria 5-6 m ingurukoa izango da. Itsasgora 19:29ean (ordu lokala) izango da 4.10 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 3.78 m + meteorologikoa: 0.32 m). Olatuen arteko periodoa: 14-15 s. Gainezka egiteko indizeak: $I=6$ m y $I_{max}= 6.5$ m

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan kostaldean 12etatik 21etara ordu lokala.

Mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete kostaldean. Bestalde, mendi inguruetan haize-boladak 70-100 km/h ingurukoak izan daitezke. Haizeguneak ez diren tokietan haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke, bereziki kostaldetik gertu.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 21etatik 24etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan. Bestalde, haizeguneak ez diren tokietan, boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke, bereziki mendebaldean.

Ostirala, hilak 3:

- Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 21etara ordu lokala.

Goizaldean olatuen altuera adierazgarria 4-5 m ingurukoa izan daiteke eta goizean goiz 6 m ingurukoa. Egunaren bigarren partean 5 m ingurukoa izan daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m inguruko olatuak altxatuko ditu eta arratsaldean 4-5 m-koak. Olatuen arteko periodoa: 14-16 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 7ko indarrarekin eta 8ko tarteekin, bereziki egunaren lehen partean. Itsaso oso zakarra eragingo du, itsaso handiko guneeekin.



- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Olatuen zipriztinak 00etatik 21etara ordu lokala.

Olatuen ezaugarrien eta mendebal-osagaiko haize zakarraren ondorioz pasealeku eta malekoietan zipriztin eta olatu-zaparrak erori daitezke, bereziki itsasgoren inguruan noiz olatuek itsasertza gaindi dezaketen. Olatuen altuera adierazgarria 6 m ingurukoa izango da goizean goiz eta 5 m ingurukoa arratsalde-gau partean. Lehengo itsasgora 07:43ean (ordu lokala) izango da 4.18 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 3.85 m + meteorologikoa: 0.33 m). Olatuen arteko periodoa: 14-15 s. Gainezka egiteko indizeak: $I=6.3$ m y $I_{max}=6.9$ m. Bigarren itsasgora 20:21ean (ordu lokala) izango da 3.74 m-ko estimatutako marearen altuerarekin (astronomikoa: 3.49 m + meteorologikoa: 0.25 m). Olatuen arteko periodoa: 15-15 s. Gainezka egiteko indizeak: $I=5.9$ m y $I_{max}=6.5$ m.

- Alerta Laranja haizeagatik haizeguneetan 00etatik 06etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 120 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 00etatik 06etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 90 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneak ez diren tokietan, bereziki mendebaldean; bertan ez da bazterzen puntualki 100 km/h abiadura gainditzea.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan kostaldean 06etatik 15etara ordu lokala.

Mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete kostaldean. Bestalde, mendi inguruetan haize-boladak 70-100 km/h ingurukoak izan daitezke. Haizeguneak ez diren tokietan haize-boladak 60-80 km/h ingurukoak izan daitezke, bereziki kostaldetik gertu.

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 21etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4-5 m ingurukoa izan daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 15-16 s. Mendebal-osagaiko haizea ibiliko da, 5-6ko indarrarekin. Itsaski handia edo itsaso zakarra eragingo du.

Larunbata, hilak 4:

- Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: **Nabigazioa** lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.

Olatuen altuera adierazgarria 4 m ingurukoa izan daiteke goizaldean, goizean 3-3.5 m ingurua jaitsi daiteke. Arratsaldean 4 m ingurukoa izan daiteke. Ipar-mendebaldeko hondoko itsasoak 3-4 m inguruko olatuak altxatuko ditu. Olatuen arteko periodoa: 14-15 s. Hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, 5-6ko indarrarekin, eta tarteka, eguerdi inguruan, mendebaldeko haizea ibilko da, 3ko indarrarekin. Itsaskirria izango da.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 03etatik 06etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan.

- Alerta Laranja haizeagatik haizeguneetan 06etatik 12etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 120 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 06etatik 12etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 90 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneak ez diren tokietan, bereziki mendebaldean.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Araban 12etatik 18etara ordu lokala.

Hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete Arabako mendi inguruetan. Bestalde, Bizkaia eta Gipuzkoako mendi inguruetan haize-boladak 90-100 km/h ingurukoak izan daitezke.

- Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 18etatik 24etara ordu lokala.



Hego-mendebaldeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gaindi dezakete haizeguneetan, bereziki mendebaldeko mendi inguruetan.

◆ **Behatutako Muturreko Fenomeno Meteorologikoak:**

Atzo gauean eta gaur goizaldean haizeguneetan neurtutako haize-boladak (km/h):

Cerroja: 160.5 (22:30ean ordu lokala)

Matxitxako: 157 (01:30ean ordu lokala)

Orduña: 151.7 (01:30ean ordu lokala)

Santa Clara: 137.2 (01:20ean ordu lokala)

Atzo gauean eta gaur goizaldean haizeguneak ez diren tokietan neurtutako haize-boladak (km/h):

Navarrete: 127.7 (23:50ean ordu lokala)

Ordizia: 119.2 (03:10ean ordu lokala)

Gasteiz: 109.4 (01:20ean ordu lokala)

Zorrotza: 98.1 (22:50ean ordu lokala)

Sigue la información en Twitter- Informazioa Twitter-en jarraitu.

@112_SOSDeiak @Euskalmet